

BUSTURIALDEKO INDUSTRIALDEA, S.A.

Sozietatearen izena

Busturialdeko Industrialdea, S.A.

IFK

A48420806

Izaera

Sozietate Publikoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

Sozietatea 1989ko abenduaren 21ean sortu zen eskritura publiko bidez, Gernikako Industrialdea, S.A. izena zuela, eta honako honek baimena eman ondoren: [259/1989 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Industria Sustaketa eta Berregokiketarako Baltzua, A.B. delakoari «Gernikako Industrialdea, A.B.» izeneko Baltzu Publikoa sortzeko baimena ematen diona.](#)

2003ko apirilaren 29an, ohiko batzar nagusi eta orokorrean, eta kontuan hartuta akziodunen artean Busturialdeko udalak sartu zirela, Gernika-Lumoko Udalari zegozkion akzioak erosteagatik, hala nola etorkizuneko jarduerak eremu horretan gauzatu behar zirela, sozietatearen izena Busturialdeko Industrialdea, S.A. izatea erabaki zuten, besteak beste.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

JESN

4110 Higiezinaren sustapena.

Sozietatearen helburua

Xedea jarduera ekonomikoetan ekimena eta inbertsioa bultzatu eta sustatzea da Busturialdean honako hauek eginez:

- a) Jarduera ekonomikoak ezartzeko lur egokia sustatzea urbanistikoki, horretarako hirigintza-egitasmoak eta hirigintza-proiektuak sustatu eta idatziz, birpartzelazioak, konpentsazioa edo hirigintza-arloko legedian aurreikusitako beste edozein aukera erabiliz; bai eta edozein titulupean industriarako hiritartu eta sustatzeko lurra erostearen bidez ere.
- b) Industria-pabilioiz eta zerbitzu-eraikinez osatutako gunek eraikitzea, eta haiek kudeatzea, dagokien titularitatea erabat eskualdatu arte.

Sailkapena kontabilitate nazionalan


Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak.

Kapital soziala

16.376.373 €

Kapital sozialaren osaera

Sprilur, S.A.	% 51,00
Azpiegiturak, S.A.U.	% 24,50
Gernika-Lumoko Udala	% 11,44
Busturialdeko gainerako udalak	% 13,06



Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseilua da sozietatea ongien kudeatzea eta ordezkatzea dagokion sozietateko kide anitzeko organoa. Honako hauek dira ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

<u>Izena:</u>	<u>Honen proposamenez izendatua:</u>
Mikel Oregi Goñi jauna	Sprilur (presidentea).
Oscar Alberdi Sola jauna	Sprilur (idazkaria).
José Miguel Artaza Artabe jauna	Sprilur.
Pedro García Pinedo jauna	Sprilur.
José Antonio Ruiz de Loizaga Isasi jauna	Azpiegiturak (presidenteordea).
Amaia García Larrucea andrea	Azpiegiturak.
José M ^a Gorroño Etxebarrieta jauna	Gernika-Lumoko Udala (idazkariordea).
Aitor Goldaraz Goienetxea jauna	Muxikako Udala.

EAEko Sektore Publikoaren proposamenez izendatuta: % 50,00

Urteko aurrekontuak

www.euskadi.eus

Ekitaldiko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

[Ikuskaritza-txostena, ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.](#)

Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	14.948.678 €
Ondare garbia	14.876.389 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	0 €
Batez besteko langile-kopurua	1

Sozietatearen helbidea

Goiko Ibarra, 32-1.a Txaporta industrialdea 48300 Gernika-Lumo (Bizkaia).

Webgunea

www.sprilur.es